

europapress / país vasco / euskera

Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola aktoreek irekiko dute 2023ko txotx bolada



SAGARDOAREN LURRALDEA

Europa Press País Vasco

Publicado: lunes, 2 enero 2023 13:01

@epeuskadi



Newsletter

DONOSTIA, 2 Ene. (EUROPA PRESS) - Jon Plazaola eta Aitziber Garmendia aktoreek aurtengo txotx boladari hasiera emango diote urtarilaren 11n, Sagardo Berriaren Egunean. Ekitaldia Astigarragako Sagardoetxean izango da, eguerdiko 12:00 etan.

Ekitaldiaren buru izango da Astigarragako alkatea eta Sagardun Patzuergoko lehendakaria, eta han egongo dira Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak. Jardunaldian uzta berria aurkeztu egingo da, eta sagarraren naiz sagardo berriaren ezaugarriak azalduko dira, sagardoaren munduko gertaerei buruz hitz egiteaz gain.

Ohitura den bezala, ekitaldiko unerik garrantzitsuena txotx irekiera izango da. Aitziber Garmendia eta Jon Plazaolak "Gure Sagardo Berria" oihukatuko dute Astigarragako Alorrenea sagardotegian, eta horrekin

hasiera emango diote 2023ko sagardo denboraldi berriari.

Gainera, aldez aurretik sagarrondo berri bat landatuko dute Sagardoetxeako sagastian, naturaren dinamikotasuna eta berritzeko ahalmena sinbolizatzeko asmoz.